

Foru Arauak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

7.864

801/2001 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuarena, abenduaren 10ekoa. Honen bidez, zerga aitoren jakin batzuk egiteko informatika programa lagungarrien formatua onartzen da.

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren helburu nagusietako bat arabar zergadunei zerga betebeharrak konplitzen laguntzea da, dagozkion aitorenak egiteko zerbitzu lagungarriak hobetuz.

Ildo horretatik, zerga hauen aitorenak betetzeko informatika programa lagungarriak taxutu dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Horixe da foru agindu honen helburua, hain zuzen: informatika programa lagungarrien formatua onartzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitoren jakin batzuk eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren atxikipien eta konturako sarreraren aitorena egiteko, bai eta horiek auzteko era, epea eta lekua onartzea ere.

Ondorioz, nire eskumeneko ahalmenez baliatuz, hau

XEDATU DUT:

LEHENA.- Zerga aitoren jakin batzuk egiteko informatika programa lagungarrien formatua onartzea.

Bat.- Zerga eta eredu hauei dagozkien informatika programa lagungarrien formatua onartzea:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zerga: 300 eredu (hiru hileko aitorena, erregimen orokorra), 310 eredu (hiru hileko aitorena, erregimen sinplifikatua), 320 eredu (hileko aitorena, enpresa handiak), 330 eredu (hileko aitorena, esportatzaileak eta beste eragile ekonomiko batzuk).

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak: 110 eredu (lanaren, jarduera profesionalen, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren eta sarien etekinak, hiru hileko aitorena) eta 111 eredu (lanaren, jarduera profesionalen, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren eta sarien etekinak, hileko aitorena).

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak: 115-A eredu (hiri higiezin errentamenduetatik datozen etekinak).

Bi.- Geroago, bat puntuan aipatutako formatuaren barruan Arabako Foru Ogasunak zerga horietarako egiten dituen informatika programa lagungarri berriak sartuko dira.

BIGARRENA.- Informatika programa lagungarrien bidez landutako aitorenak auzteko era.

Bat.- Zergadunek informatika programa lagungarriez baliatuz landu dituzten aitorenak inprimatzen diren paperean auzteko behar dira, foru agindu honetako hirugarren paragrafoan aipatzen diren epe eta lekuetan.

Aitoren horiek inprimatzen diren paperek inprimaki ofizialen balio berbera izango dute.

Bi.- Aitorenei nahitaezko identifikazio etiketa itsatsi behar dira, azaroaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 99/1996 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

HIRUGARRENA.- Informatika programa lagungarrien bidez landutako aitorenak auzteko epea eta lekua.

Informatika programa lagungarriez baliatuz lantzen diren aitorenak auzteko epea eta lekua eredu horien inprimaki ofizialak auzteko ezartzen diren berberak izango dira; ereduak onartzeko dagozkion foru aginduetan zehaztuko dira horiek.

Ordenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

7.864

ORDEN FORAL 801/2001, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 10 de diciembre, por la que se aprueba el formato que contiene los programas informáticos de ayuda para la confección de determinadas declaraciones tributarias.

El Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava tiene como uno de sus principales objetivos facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias de los contribuyentes alaveses mejorando los servicios de ayuda en la confección de las correspondientes declaraciones.

En este marco, se sitúa la elaboración de los Programas Informáticos de Ayuda para la cumplimentación de declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre el Patrimonio, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre el Valor Añadido.

La presente Orden Foral tiene como finalidad aprobar el formato que contiene los programas informáticos de ayuda para la confección de determinadas declaraciones del Impuesto sobre el Valor Añadido, de Retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, así como la forma, plazo y lugar de presentación de las mismas.

En su virtud y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobar el formato que contiene los programas informáticos de ayuda para la confección de determinadas declaraciones tributarias.

Uno.- Se aprueba el formato que contiene los Programas Informáticos de Ayuda correspondientes a los siguientes impuestos y modelos:

a) Impuesto sobre el Valor Añadido: modelos 300 (declaración trimestral, régimen general), 310 (declaración trimestral, régimen simplificado), 320 (declaración mensual, grandes empresas), 330 (declaración mensual, exportadores y otros operadores económicos).

b) Retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Modelo 110 (rendimientos del trabajo, de actividades profesionales, de actividades agrícolas y ganaderas y premios, declaración trimestral) y 111 (rendimientos del trabajo, de actividades profesionales, de actividades agrícolas y ganaderas y premios, declaración mensual).

c) Retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades: modelo 115-A (rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos).

Dos.- Dentro del formato mencionado en el punto uno, se incluirán en un futuro los nuevos programas informáticos de ayuda que se vayan elaborando por la Hacienda Foral de Álava referidos a estos Impuestos.

SEGUNDO.- Forma de presentación de las declaraciones confeccionadas a través de los programas informáticos de ayuda.

Uno.- Las declaraciones confeccionadas por los contribuyentes utilizando los programas informáticos de ayuda, deberán presentarse en el papel en el que se impriman y en los plazos y lugares a que se refiere el apartado tercero de esta Orden Foral.

El papel en que se impriman estas declaraciones tendrá la misma validez que el impreso oficial.

Dos.- Las declaraciones deberán ir acompañadas de la etiqueta identificativa obligatoria, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto Foral 99/1996, del Consejo de Diputados, de 19 de noviembre.

TERCERO.- Plazo y lugar de presentación de las declaraciones confeccionadas a través de los programas informáticos de ayuda.

El plazo y lugar de presentación de los modelos de declaraciones confeccionadas a través de los programas informáticos de ayuda, serán los mismos que los fijados para la presentación en impreso oficial de los citados modelos, determinados en cada una de las respectivas Ordenes Forales que los aprueban.

AZKEN XEDAPENA

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean foru agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko abenduaren 10a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

LEHENDAKARITZA SAILA

8.194

493/2001 FORU AGINDUA, abenduaren 24koa, Lehendakartzako foru diputatuarena. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan-poltsak kudeatzeko arauak onartzen dira.

Arabako Foru Aldundian aldi baterako bete behar diren lanpostuak bitarteko funtzionarioen izendapenez edo zerbitzu-eginkizunen bidez betetzen dira, karrerako funtzionario bat ordeztzeko edo hutsik dauden lanpostuak betetzeko denean.

Zerbitzu-eginkizunek jardunbide arautua dute, denek ezagutzen dutena. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorraren esparruko lan-poltsen kudeaketak ondoko bi baldintzak betetzen dituen arautegi bat behar du, publikoa hau ere: alde batetik, zerbitzuen beharrazine berehalakoan erantzun egokiena ematea, eta, bestetik, aukeratze prozesuan interesatuen eskubideak bermatzea.

Horretarako, zehaztu behar da nortzuk osatzen duten lan-poltsa bat eta nolako egoeretan egon daitezkeen, zein kasutan den egokia lanpostua aldi baterako betetzea eta, batez ere, zeintzuk izango diren kudeatzeko eta langileei deitzeko irizpideak.

Diputatuen Kontseiluak, uztailaren 11ko 70/2000 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onartu zituen 2000 eta 2001. urtetarako, eta horren eranskineko hirugarren ataleko zazpigarren zenbakian aurreikusten da lan-poltsen arautegia langileen ordezkariekin negoziatuko dela, Foru Enpleguko Mahai Parekidearen barruan.

Diputatuen Kontseiluaren 49/1996 Foru Dekretuak, apirilaren 2koak, Funtzio Publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituenak, bere 4. artikuluan dioenaren arabera,

ERABAKI DUT:

Lehenengo artikulua.- Lan-poltsaren kontzeptua.

Arabako Foru Aldundiak kudeatutako aukeratze prozesuetan nahitaezko proba kanporatzaile guztiak gainditzen edo gainditu dituzten pertsonen zerrenda izango da lan-poltsa.

Bigarren artikulua.- Zein kasutan erabiliko diren lan-poltsak.

1- Lanpostuak aldi baterako betetzeko.

Erabil daitezke lan-poltsak bitarteko funtzionarioak izendatzeko, karrerako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak bete behar direnean, lanpostu horiek hutsik badaude edo beren jabea edo okupatzailea bertatik kanpo baldin badago.

Arau orokor gisa, funtzionarioa ez da ordeztuko oporraldietan, lanaldia heren batean murrizten denean, adingabeak edo ezindu fisiko edo psikikoak zaintzeko edo ikasketa akademiko ofizialak egiteko lizentzia edukitzeagatik.

2- Aldi baterako programak.

Erabil daitezke lan-poltsak aldi baterako programak burutzeko bitarteko funtzionarioa izendatzeko. Izendapenean, programarako aurreikusitako amaiera-data eta amaiera hori dakarten zirkunstantziak zehaztu behar dira, baita izendapena beharrezko egiten duten beharrazinak ere.

Hirugarren artikulua.- Lan-poltsako kide bat zer egoeratan egon daitezkeen.

1).- Libre. Ez da lanean ari Arabako Foru Aldundian.

2).- Lanean. Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorraren eremuan lanean ari da. Egoera horretan aurkitzen diren langile-

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2001.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

8.194

ORDEN FORAL 493/2001, de 24 de diciembre, del Diputado Foral de Presidencia, por la que se aprueba la normativa de las bolsas de trabajo de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

Las necesidades temporales de personal en la Diputación Foral de Álava se cubren bien a través de nombramiento de funcionario/a interino/a o bien mediante comisión de servicios, cuando se trata de sustituir a un/a funcionario/a de carrera o de cubrir vacantes.

Así como las comisiones de servicios tienen un procedimiento reglado, de público conocimiento, la gestión de bolsas de trabajo en el ámbito de la Administración General de la Diputación Foral de Álava precisa una normativa, igualmente pública, que proporcione, por una parte, una respuesta inmediata y óptima a las necesidades de los servicios y, por otra parte, que garantice los derechos de los interesados en el procedimiento de selección.

Para ello, procede determinar quienes conforman una bolsa de trabajo y en qué situaciones se pueden encontrar, en qué supuestos procede la cobertura temporal y, fundamentalmente, cuáles son los criterios de gestión y llamamiento.

Por su parte, el Decreto Foral 70/2000, del Consejo de Diputados de 11 de julio, que aprueba las condiciones de empleo del personal funcionario de la Administración General de la Diputación Foral de Álava para los años 2000 y 2001, contiene en el número siete del apartado tercero del anexo la previsión de que se negociará con la representación del personal, en el marco de la Mesa Paritaria de Empleo Foral, la regulación de las bolsas de trabajo.

De conformidad con lo establecido en el artículo 4 del Decreto Foral número 49 del Consejo de Diputados de 2 de abril de 1996, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública,

DISPONGO:

Artículo primero.- Concepto de bolsa de trabajo.

Constituye bolsa de trabajo la relación de personas que superen o hayan superado todas las pruebas obligatorias y eliminatorias en los procesos selectivos gestionados por la Diputación Foral de Álava.

Artículo segundo.- Supuestos de utilización de las bolsas de trabajo.

1- Provisión temporal de puestos.

Procederá la utilización de las bolsas de trabajo para el nombramiento de funcionario/a interino/a en aquellos supuestos de provisión de puestos de trabajo reservados a funcionario/a de carrera que se encuentren vacantes o cuyo titular u ocupante se encuentre temporalmente ausente.

Como regla general no se sustituirá al funcionario/a en periodos vacacionales ni en los supuestos de reducciones de jornada en un tercio por disfrute de licencia por cuidado de menores o disminuidos/as físicos o psíquicos o por realización de estudios académicos oficiales.

2- Programas temporales.

Procederá la utilización de las bolsas de trabajo para el nombramiento de funcionario/a interino/a para la ejecución de programas temporales. En el nombramiento deberá determinarse la fecha de finalización prevista del programa y las circunstancias que determinan dicha finalización, así como las necesidades que hacen necesario el nombramiento.

Artículo tercero.- Situaciones en las que puede estar un/a integrante de la bolsa de trabajo.

1).- Disponible. No se encuentra prestando servicios en la Diputación Foral de Álava.

2).- Trabajando. Está prestando sus servicios en el ámbito de la Administración General de la Diputación Foral de Álava. El personal